



Ebazpena, 2024ko abenduaren 12koa, Justizia Administrazioako zuzendariarena, Donostiako Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesalean kudeatzaile arduradun lanpostua zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdia behin betiko ebazten duena.

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2024ko urriaren 30eko Ebazpenaren bidez, Donostiako Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesalean kudeatzaile arduradun lanpostu bat (1) zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdia egin zen.

Aipatutako 2024ko urriaren 30eko Ebazpenaren zazpigarren ebazpen-zatian ezarritakoaren arabera, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 12. artikulua ematen didan eskumenaz baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- 380011/2 lanpostua eta dotazioa zerbitzu-eginkizunetan esleitzea Alazne Ascenso Gabiñari.

Bigarrena.- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gora jotzeko errekurtsua jarri zenetik hiru hilabete igaro eta ebazpenik eman ez bada, errekurtsua ezetsizat jo eta administrazioarekiko auzibidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 12a

Maria Dolores Movilla Rivas

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA